PASAIAKO UDALA www.pasaia.eus	**OSASUNA ZAINTZEKO ETA PASAIAKO UDALAREN UDAL ERAIKINETAKO AUTOBABESERAKO PLANAK EGIN, EZARRI, MANTENDU ETA IZAPIDETZEKO ZERBITZUAK** **SERVICIOS PARA LA VIGILANCIA DE LA SALUD Y LA ELABORACIÓN, IMPLANTACIÓN, MANTENIMIENTO Y TRAMITACIÓN DE LOS PLANES DE AUTOPROTECCIÓN (PAU) DE LOS EDIFICIOS MUNICIPALES DEL AYUNTAMIENTO DE PASAIA** **……..** **BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA** **PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS**	**IFK/CIF** P2006900A **Tel.** 943 344034 Donibane kalea, 19 20110 Pasaia **KONTRATAZIOA** **Tel.** 943 344034 kontratazioa@pasaia.net

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, OSASUNA ZAINTZEKO ETA PASAIAKO UDALAREN UDAL ERAIKINETAKO AUTOBABESERAKO PLANAK EGIN, EZARRI, MANTENDU ETA IZAPIDETZEKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS, PARA CONTRATAR POR PROCEDIMIENTO ABIERTO LOS SERVICIOS PARA LA VIGILANCIA DE LA SALUD Y LA ELABORACIÓN, IMPLANTACIÓN, MANTENIMIENTO Y TRAMITACIÓN DE LOS PLANES DE AUTOPROTECCIÓN (PAU) DE LOS EDIFICIOS MUNICIPALES DEL AYUNTAMIENTO DE PASAIA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA
1.1.- Definizioa

Kontratu honen xedea honako zerbitzu hauek ematea da:

- **Osasunaren zaintza:** Laneko Medikuntzako espezialitatean osasuna zaintzeko zerbitzua ematea, Kanpoko Prebentzio Zerbitzu baten bidez, Pasaiako Udaleko, Pasaia Musikaleko eta Pasaiako Euskaltegiko langileentzat.

- **Autobabes-planak (ABP):** 4.2 atalean zerrendatutako Pasaiako Udalaren udal-eraikinetako autobabes-planak prestatu, ezarri, eguneratuta mantendu eta homologatzeko izapideak egitea.

Kontratuaren xedea ez da kanpoko prebentzio-zerbitzua ematea Laneko Segurtasuna, Higiene Industriala eta Ergonomia eta Psikosoziologia Aplikatua espezialitate teknikoetan.

Erakunde kontratatzaileak honako hauek dira: Pasaiako udala, Pasaia Musikal eta Pasaiako Euskaltegia.

Pasaiako udala-k prozedura kudeatuko du bere izenean eta gainerako bi botere esleitzaileen izenean, hau da, Pasaia Musikal eta Pasaiko Euskaltegia-ren izenean.

I - CONTENIDO DEL CONTRATO

1. OBJETO DEL CONTRATO
1.1.- Definición

El objeto del presente contrato es la prestación de los siguientes servicios:

- **Vigilancia de la Salud:** prestación del servicio de vigilancia de la salud en la especialidad de Medicina del Trabajo, a través de un Servicio de Prevención Ajeno (SPA), para el personal al servicio del Ayuntamiento de Pasaia, Pasaia Musikal y Pasaiako Euskaltegia.

- **Planes de Autoprotección (PAU):** elaboración, implantación, mantenimiento actualizado y tramitación de la homologación de los Planes de Autoprotección de los edificios municipales del Ayuntamiento de Pasaia que se relacionan en el apartado 4.2

No forma parte del objeto del contrato la prestación del Servicio de Prevención Ajeno en las especialidades técnicas de Seguridad en el Trabajo, Higiene Industrial y Ergonomía y Psicosociología Aplicada.

Las entidades contratantes son Pasaiako udala, Pasaia Musikal y Pasaiako Euskaltegia.

Pasaiako udala administrará el procedimiento por cuenta propia y por cuenta de los otros dos poderes adjudicadores, esto es, Pasaia Musikal y

Horrela:

-Hiru erakunde kontratatzaileetako bakoitzarekin egin beharreko kontratuak prestatzeari, eskaintzarik onena hautatzeari eta kontratuak esleitzeari dagozkien jarduketak Pasaiako udala-k egingo ditu esklusiboki.

-Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak Administrazio Klausula Berezien Pleguaren 21. klausulan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta esleipena argitaratu eta lizitatzaileei jakinarazi ostean, aipatutako klausulan adierazitako epean, eduki bereko kontratu bana sinatuko da hiru erakundeetako bakoitzarekin.

Horrela, lizitazio honen xede diren zerbitzuen prestazioa Pasaiako udala, Pasaia Musikal eta Pasaiko Euskaltegiak eskatu eta kontratatu ahal izango dute, bata zein bestea indistintoki; zerbitzuak eskatu dituen erakundeari fakturatuko zaizkio, eta erakunde horrek berak ordainduko ditu.

Dagokion kontratua sinatzen den unetik aurrera, kontratuen betearazpen- eta azkentze- faseei dagokienez, eskubide eta betebeharren araubidea hiru erakunde kontratatzaileetako bakoitzari banaka aplikatuko zaiola ulertuko da.

Zerbitzu-kontratua izango da.

1.2.- Arau - oinarria

Zerbitzua honako hauetan xedatutakoaren arabera emango da:

Osasunaren zaintza:

- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa (LAPL).
- 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena.
- 843/2011 Errege Dekretua, ekainaren 17koa, prebentzio-zerbitzuen jarduera sanitarioa garatzeko baliabideak antolatzeko oinarrizko irizpideak ezartzen dituena.
- 41/2002 Legea, azaroaren 14koa, pazientearen autonomia arautzen duena.
- Osasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan Eusko Jaurlaritzak duen araudi aplikagarria.

Autobabes Planak:

- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa (20). Lege horrek larrialdi-neurriak izatera behartzen ditu lantoki guztiak.

Pasaiako Euskaltegia.

Siendo así:

-Las actuaciones relativas a la preparación de los contratos a celebrar con cada una de las tres entidades contratantes, la selección de la mejor oferta y la adjudicación de los contratos serán llevadas a cabo exclusivamente por Pasaiako udala:

-Una vez aportada por el licitador que hubiera presentado la mejor oferta la documentación exigida en la Cláusula 21 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, y tras la publicación de la adjudicación y su notificación a los licitadores, se suscribirán, en el plazo indicado en la referida Cláusula, sendos contratos, de idéntico contenido, con cada una de las tres entidades.

Siendo así, la prestación de los servicios objeto de la presente licitación podrá solicitarse y contratarse, indistintamente, desde la Pasaiako udala, Pasaia Musikal y Pasaiako Euskaltegia, siendo facturados a aquella entidad que los haya requerido y abonados por la misma.

A partir del momento de la suscripción de los respectivos contratos, el régimen de derechos y obligaciones, en todo lo relativo a las fases de ejecución y extinción de los contratos, se entenderá referido individualmente a cada una de las tres entidades contratantes.

Será un contrato de servicios.

1.2.- Fundamento normativo

El servicio se prestará de conformidad con lo dispuesto en:

Vigilancia de la Salud:

- La Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales (LPRL).
- El Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención (RSP).
- El Real Decreto 843/2011, de 17 de junio, por el que se establecen los criterios básicos sobre la organización de recursos para desarrollar la actividad sanitaria de los servicios de prevención.
- La Ley 41/2002, de 14 de noviembre, básica reguladora de la autonomía del paciente.
- La normativa autonómica aplicable del Gobierno Vasco en materia sanitaria y de prevención de riesgos laborales.

Planes de Autoprotección:

- La Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales (art. 20), que obliga a todos los centros de trabajo a

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KONTRATAZIOA
Tel. 943 344034
kontratazioa@pasaia.net

- 393/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa, Autobabeserako Oinarrizko Araua onartzen duena.
- 1468/2008 Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, 393/2007 Errege Dekretua aldatzen duena.
- 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autobabes Planak arautzen dituena.
- Babes zibilaren eta larrialdien arloan aplikatzekoa den autonomia-erkidegoko eta tokiko araudia.

2.-APLIKAZIO EREMUA
2.1.- Osasunaren zaintza

Pasaiako Udaleko, Pasaia Musikaleko eta Pasaiako Euskaltegiko langile guztiei aplikatuko zaie kontratua, honako hauek barne:

- Karrerako funtzionarioak, bitartekoak eta behin-behinekoak.
- Lan-kontratuko langileak, modalitate guztietan.
- Iraupen mugatuko kontratua duten langileak.

Langileen kopurua aldatu ahal izango da kontratazio berrien, erretiroen, lanpostu-aldaketen eta bestelako egoeren ondorioz, eskainitako unitateko prezioak aldatu gabe. Gaur egun, hiru erakundeek 245 langile inguru dituzte.

2.1.- Autobabes - planak

Honako eraikin hauek izan behar dituzte ABPak:

Nº	ERAIKINA
1	Donibaneko kiroldegia
2	Ibaiondo frontoia
3	Lanbide Hastapenetarako Ikastegia (LHIK)
4	Antxoko erretiratuen etxea
5	Nabarra Bouako garajeak

disponer de medidas de emergencia.

- El Real Decreto 393/2007, de 23 de marzo, por el que se aprueba la Norma Básica de Autoprotección (NBA).
- El Real Decreto 1468/2008, de 5 de septiembre, por el que se modifica el RD 393/2007.
- El Decreto 277/2010, de 2 de noviembre, por el que se regulan los Planes de Autoprotección en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- La normativa autonómica y local aplicable en materia de Protección Civil y emergencias.

2.- ÁMBITO DE APLICACIÓN
2.1.- Vigilancia de la salud

El contrato será aplicable a todo el personal del Ayuntamiento de Pasaia, Pasaia Musikal y Pasaiako Euskaltegia incluyendo:

- Funcionarios/as de carrera, interinos/as y eventuales.
- Personal laboral en todas sus modalidades.
- Personal con contrato de duración determinada.

El número de trabajadores/as podrá sufrir modificaciones por nuevas contrataciones, jubilaciones, cambios de puesto, etc., sin que ello suponga variación en los precios unitarios ofertados. Actualmente la plantilla de las tres entidades es de unas 245 personas.

2.1.- Planes de autoprotección

Los edificios que deberán disponer de PAU son los siguientes:

Nº	EDIFICIO
1	Polideportivo de Donibane
2	Frontón Ibaiondo
3	Centro de Iniciación Profesional (CIP)
4	Hogar del Jubilado de Antxo
5	Garajes Bou Navarra
6	Tenencia de Alcaldía de Trintxerpe

6	Trintxerpeko Alkateordetza
7	Juanba Berasategi eraikin soziokulturala
8	Antxoko Kultur Etxea
9	San Pedroko Kultur Etxea
10	Donibaneko erretiratuen etxea
11	Arrokaundieta aterpetxea
12	Trintxerpeko erretiratuen etxea.
13	San Pedroko tutoretzapeko apartamentuak
14	Euskaltegia

7	Edificio Sociocultural Juanba Berasategi
8	Casa de Cultura de Antxo
9	Casa de Cultura de San Pedro
10	Hogar del Jubilado de Donibane
11	Albergue Arrokaundieta
12	Hogar del Jubilado de Trintxerpe
13	Apartamentos Tutelados de San Pedro
14	Euskaltegi

Betebeharraren justifikazioa: Eraikin horiek 393/2007 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan sartzen dira beren jardueragatik, konkurrentziagatik edo ezaugarriengatik; eta arrazoi horiengatik, ABP homologatu bat izan behar dute. Bereziki, bizitegi-erabilera publikorako (zahar-etxeak, apartamentu babestuak), irakaskuntzarako (LHIK, Euskaltegia) eta konkurrentzia publikorako (kiroldegia, frontoia, kultura-etxeak, aterpetxea) eraikinek gainditu egiten dituzte ABPa egitea eskatzen duten okupazio-, azalera- edo jarduera-atalaseak.
Udalak eraikin berriak gehitu ahal izango dizkio kontratuari indarrean dagoen bitartean, betiere 12. apartatuan ezarritako % 20ko muga gainditzen ez bada.

Justificación de la obligación: Estos edificios se incluyen en el ámbito de aplicación del RD 393/2007 por su actividad, concurrencia o características, que obligan a disponer de un PAU homologado. En particular, los edificios destinados a uso residencial público (hogares del jubilado, apartamentos tutelados), docente (CIP, Euskaltegi) y pública concurrencia (polideportivo, frontón, casas de cultura, albergue) superan los umbrales de ocupación, superficie o actividad que exigen la elaboración del PAU.
El Ayuntamiento podrá incorporar nuevos edificios al contrato durante su vigencia, siempre que no se supere el límite del 20% establecido en el apartado 12.

3. KANPOKO PREBENTZIO – ZERBITZUAREN BALDINTZAK

Kontratua indarrean dagoen bitartean, erakunde esleipendunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

3.1 Baimenak

- Laneko medikuntzaren espezialitatean kanpoko prebentzio-zerbitzu gisa jarduteko behin betiko baimena izatea, lan-agintaritza eskudunak egiaztatuta.
- Osasun-zaintzako jarduerak egiten diren osasun-zentroaren funtzionamendu-baimen sanitarioa izatea.

3.2 Giza baliabideak

a) 843/2011 Errege Dekretuaren 1.3 artikuluak ezartzen duen bezala, jarduera horiek gauzatzeko, entitate kontratistak osasun-zerbitzu bat izan beharko du, hau da, prebentzio- eta asistentzia-unitate bat, Laneko Medikuntzan espezialista edo Enpresako Medikuntzan diplomatua den baten ardurapean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean araututako langileen osasuna zaintzeko funtzioak betetzen dituena.

3. REQUISITOS DEL SERVICIO DE PREVENCIÓN AJENO

La entidad adjudicataria deberá cumplir, durante toda la vigencia del contrato, los siguientes requisitos:

3.1.- Autorizaciones

- Disponer de autorización definitiva como Servicio de Prevención Ajeno en la especialidad de Medicina del Trabajo, acreditada por la autoridad laboral competente
- Disponer de autorización sanitaria de funcionamiento del centro sanitario donde se desarrollen las actividades de vigilancia de la salud.

3.2.- Recursos humanos

a) Como establece el artículo 1.3 del Real Decreto 843/2011, para llevar a cabo estas actividades, la entidad contratista deberá contar con un Servicio sanitario, entendiendo por tal la Unidad preventivo-asistencial que bajo responsabilidad de un especialista en Medicina del Trabajo o diplomado en Medicina de Empresa desarrolla las funciones de vigilancia de la salud de los trabajadores reguladas en la Ley de

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KONTRATAZIOA
Tel. 943 344034
kontratazioa@pasaia.net

b) Nolanahi ere, eta 843/2011 Errege Dekretuaren 4.1 artikulua betez, erakunde kontratistaren osasun-zerbitzuak zuzendari tekniko bat izan beharko du, Laneko Medikuntzako espezialistaren titulua duena eta kolegiatua.

c) Langileen osasuna zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizunak indarreko araudiaren arabera egiaztatutako gaitasun teknikoa, prestakuntza eta gaitasuna duten osasun-langileek beteko dituzte. Zehazki, 843/2011 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluak ezartzen duen bezala, medikuek Laneko Medikuntzako espezialistak edo Enpresako Medikuntzako diplomadunak izan beharko dute; erizainek Laneko Erizaintzako espezialistak edo Enpresako Erizaintzako diplomadunak izan beharko dute.

d) Profesional sanitarioen kopurua eta ordutegia zaindu beharreko populazioarentzat, dauden arriskuentzat eta garatuko dituzten funtzioentzat egokiak izango dira. Gutxieneko langile-kopurua ez da inola ere izango 843/2011 Errege Dekretuaren 4.3.a) artikuluan ezarritakoa baino txikiagoa.

e) Entitate kontratistak eutsi egin beharko die osasun-jarduera egiteko baimena emateko erabili ziren egiaztapen-baldintzei. Osasun-agintaritzari jakinarazi beharko dio osasun-langileen plantillan izandako edozein aldaketa. 843/2011 Errege Dekretuaren 4.5 artikuluan eskatzen den jakinarazpen hori Pasaiako Udalari ere helarazi beharko zaio.

f) Erakunde kontratistaren osasun-zerbitzuan lan egiten duten langileei Pazientearen autonomia arautzen duen azaroaren 14ko 41/2002 Oinarrizko Legea aplikatuko zaie, bai eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak arlo horietan emandako araudia ere.

Prevención de Riesgos Laborales.

b) En todo caso, y en cumplimiento del artículo 4.1 del Real Decreto 843/2011, el servicio sanitario de la entidad contratista deberá contar con un/a **Director/a Técnico/a**, con el título de especialista en Medicina del Trabajo y colegiado.

c) Las funciones de vigilancia y control de la salud del personal serán desempeñadas por personal sanitario con competencia técnica, formación y capacidad acreditada con arreglo a la normativa vigente. En concreto, tal y como establece el artículo 4.2 del Real Decreto 843/2011, los médicos deberán ser especialistas en Medicina del Trabajo o Diplomatura en Medicina de Empresa; los enfermeros deberán ser especialistas en Enfermería del Trabajo o Diplomados en Enfermería de Empresa.

d) El número de profesionales sanitarios/as y su horario será adecuado a la población a vigilar, a los riesgos existentes y a las funciones que vayan a desarrollar. La dotación mínima en ningún caso será inferior a la establecida en el art. 4.3.a) del RD 843/2011.

e) La entidad contratista deberá mantener las condiciones de acreditación con las que se autorizó la realización de la actividad sanitaria. Deberá notificar a la autoridad sanitaria cualquier modificación en la plantilla de personal sanitario. Esta comunicación exigida por el artículo 4.5 del Real Decreto 843/2011 deberá hacerse extensiva al Ayuntamiento de Pasaia.

f) Al personal que desarrolle su actividad en el servicio sanitario de la entidad contratista le será de aplicación la Ley 41/2002, de 14 de noviembre, básica reguladora de la autonomía del paciente, así como la normativa que en estas materias haya dictado la Consejería de Salud del Gobierno Vasco.

3.3.- Osasun – zentroaren kokapena

Osasunaren zaintza Pasaiako Udaleko langile guztiei eman behar zaienez, eta udal langileen lanaldiaren etenaldiak eta joan-etorriak

3.3.- Ubicación del centro sanitario

Dado que la vigilancia de la salud debe prestarse a todo el personal del Ayuntamiento de Pasaia, y con el fin de minimizar las interrupciones en la jornada

minimizatzeko, azterketa medikoak egiten diren osasun-zentroak Oarsoaldean (Pasaia, Errenteria, Lezo, Oiartzun) edo, halakorik ezean, Donostialdean egon beharko du, Pasaiatik garraio publikoan iristeko 30 minututik beherako epean.

Horretarako, erakunde esleipendunak honako hau adierazi beharko du bere eskaintzan:

- Azterketak egingo diren osasun-zentroaren helbide zehatza.
- Zentro horren funtzionamendurako baimen sanitarioaren egiaztapena.
- Pasaiatik joateko aurreikusitako denbora eta erabilgarri dauden garraiobideak.

Kontratua indarrean dagoen bitartean osasun-zentroa lekuz aldatzeko, Udalaren aldez aurreko baimena beharko da, eta ezin izango da langileak bertara iristeko behar duten denbora luzatu.

laboral y los desplazamientos de los trabajadores municipales, el centro sanitario donde se realicen los reconocimientos médicos deberá estar ubicado en la comarca de Oarsoaldea (Pasaia, Errenteria, Lezo, Oiartzun) o, en su defecto, en Donostialdea, con acceso en transporte público desde Pasaia en un tiempo inferior a 30 minutos.

A tal efecto, la entidad adjudicataria deberá indicar en su oferta:

- La dirección exacta del centro sanitario donde se practicarán los reconocimientos
- La acreditación de la autorización sanitaria de funcionamiento de dicho centro
- El tiempo estimado de desplazamiento desde Pasaia y los medios de transporte disponibles.

El cambio de ubicación del centro sanitario durante la vigencia del contrato requerirá autorización previa del Ayuntamiento, y en ningún caso podrá implicar un aumento del tiempo de desplazamiento para los trabajadores.

3.4.- Baliabide materialak

a) 843/2011 Errege Dekretuaren 5. artikuluaren arabera, osasun-zerbitzuaren baliabide materialen kopurua egiten diren funtzioetara egokitu beharko da, eta behar diren ekipoak eta materialak izan beharko ditu, bai eta artxiboko ekipoak eta materiala ere.

b) Osasun-zerbitzuak erabiltzaileak sartu eta hartzeko guneak, arreta-gunea (kontsultak eta kabineteak), zerbitzuaren laguntza orokorrak eta langileen eremua izan behar ditu, eta pertsonen duintasuna eta intimitatea bermatu behar ditu prebentzio-zerbitzuaren eremu espezifiko batean, diziplinarteko beharrezko koordinazioari kalterik egin gabe.

c) Osasun-zerbitzua lokal propioetan, edo alokatutako edo lagatako lokaletan ezarri ahal izango da, eta lokal horiek aplikatu beharreko indarreko arauetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

d) Osasun-zerbitzuak ekipamendu eta material egokiak izan beharko ditu, bereak edo hitzartuak, Pasaiako Udalean lanetik eratorritako arriskuei dagokienez langileen osasuna zaintzeko.

e) Gutxieneko ekipamendua araudi aplikagarrian ezarritakoa izango da.

f) Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren eta aplikatu beharreko gainerako araudiaren arabera, datuak tratatzean konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatzen duten zaintza-sistemak dituzten artxiboko ekipoak eta materiala eduki behar dira.

g) Osasuna zaintzeko jarduera garatzeko unitate mugikor osagarriak izanez gero, funtzionamendurako

3.4.- Recursos materiales

a) De conformidad con el artículo 5 del Real Decreto 843/2011, la dotación de recursos materiales del servicio sanitario deberá ser adecuada a las funciones que se realicen, disponiendo de los equipos y materiales necesarios, así como equipos y material de archivo.

b) El servicio sanitario debe disponer de espacios para el acceso y recepción de las personas usuarias, la zona de atención (consultas y gabinetes), los apoyos generales del servicio y la zona de personal, debiendo garantizar la dignidad e intimidad de las personas en un área específica del servicio de prevención, sin menoscabo de la necesaria coordinación interdisciplinar.

c) El servicio sanitario podrá establecerse en locales propios, alquilados o cedidos, que deben cumplir los requisitos establecidos en las normas vigentes que resulten de aplicación

d) El servicio sanitario deberá disponer de equipos y material adecuados, propios o concertados, para realizar la vigilancia de la salud de los trabajadores en relación con los riesgos derivados del trabajo en el Ayuntamiento de Pasaia.

e) La dotación de equipamiento mínimo será la establecida en la normativa aplicable.

f) Se debe disponer de equipos y material de archivo con los sistemas de custodia que garanticen la confidencialidad y seguridad en el tratamiento de los datos de acuerdo con la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KONTRATAZIOA
Tel. 943 344034
kontratazioa@pasaia.net

osasun-baimena izan beharko dute, eta behar adina ekipo eta material sanitario eduki beharko dituzte langileen zaintza eta arreta egokiak bermatzeko, bai eta haien segurtasuna, intimitatearen eta duintasunaren errespetua eta datuen konfidentzialtasuna bermatzeko ere, instalazio finkoei eskatzen zaizkien kopuru berekin. Indarrean dagoen osasun-laguntzako zentro mugikorretarako araudi espezifikoa beteko dute, eta erabat irisgarriak izango dira desgaitasuna duten pertsonentzat.

h) Entitate kontratistak instalazioen eta ekipamenduaren mantentze-lanak bermatu beharko ditu, dagozkion mantentze-kontratu eguneratuekin eta horien ondoriozko jardueren erregistroarekin.

derechos digitales, y demás normativa que le sea aplicable.

g) En caso de disponer de unidades móviles complementarias para el desarrollo de la actividad de vigilancia de la salud, deberán disponer de autorización sanitaria de funcionamiento y deberán contar con los equipos y material sanitario suficientes que garanticen la vigilancia y atención adecuadas de los trabajadores, así como su seguridad, el respeto de su intimidad y dignidad, y la confidencialidad de sus datos, con las mismas dotaciones exigidas a las instalaciones fijas. Cumplirán con la normativa específica para centros móviles de asistencia sanitaria vigente y serán plenamente accesibles a las personas con discapacidad.

h) La entidad contratista deberá garantizar el mantenimiento de las instalaciones y equipamiento, con los correspondientes contratos de mantenimiento actualizados y el registro de las actividades que de ellos deriven.

3.5.- Koordinatzaile teknikoa

Erakunde esleipendunak koordinatzaile tekniko bat izendatuko du Udalarekin harremanetan jartzeko pertsona gisa, zerbitzuaren bi blokeetako jarduketak koordinatzeko eta Prebentzio Zerbitzu propioarekin edo izendatutako udal-arduradunarekin hitz egiteko.

3.5.- Coordinador técnico

La entidad adjudicataria designará un/a **Coordinador/a Técnico/a** como persona de contacto con el Ayuntamiento, encargado de coordinar las actuaciones de ambas especialidades del servicio y mantener la interlocución con el Servicio de Prevención Propio o el responsable municipal designado.

4. ZERBITZUAREN EDUKIA

4.1 Osasunaren zaintza

a) Osasunaren banakako zaintza

(1) Helburua

Osasunaren zaintzaren helburua da lanak eragindako kalteen sintoma eta seinale goiztiarrak sistematikoki eta erregulartasunez detektatzea, Pasaiako Udaleko langileen arrisku-egoerak identifikatzea eta behar diren prebentzio-neurriak proposatzea.

(2) Azterketa motak

Zerbitzuak, gutxienez, azterketa mota hauek izango

4. CONTENIDO DEL SERVICIOS

4.1 Vigilancia de la salud

a) Vigilancia individual de la salud

(1) Objetivo

La vigilancia de la salud tiene como finalidad detectar de forma sistemática y regular los síntomas y signos precoces de los daños derivados del trabajo, identificar las situaciones de riesgo del personal al servicio del Ayuntamiento de Pasaia y proponer las medidas preventivas necesarias.

(2) Tipos de reconocimiento

El servicio comprenderá, como mínimo, los

ditu:

- **Hasierako azterketa:** langilearen osasuna ebaluatzea, lanean hasi ondoren edo osasunerako arrisku berriak dituzten zeregin espezifikoak esleitu ondoren.
- **Aldizkako azterketa:** osasuna aldizka zaintzea, kontuan hartuta langilearen arriskuekiko esposizioa, aplikatu beharreko araudi espezifikoa, haren osasun-egoera eta osasun-langileen irizpideak. Urtean gutxienez osasun-azterketa bat egingo zaio langile bakoitzari. Hala ere, aldizkakotasuna urtebetetik beherakoa izan daiteke, aplikatu beharreko araudiak edo lanpostuaren protokolo espezifikoak hala eskatzen dutenean.
- **Luzaroko absentziaren ondorengo azterketa:** osasun-arrazoiengatik luzaroan lanera joan gabe egon ondoren lanera itzultzen diren langileen osasuna ebaluatzea (6 hilabetetik gorako absentzia luzetzat hartuko da). Udalak kontratistari absentzia horien berri emango dio.
- Azterketa haurdun dauden edo e**rditu berri diren langileei**: langileari eta fetuari eragin diezaieketen arriskuen ebaluazio espezifikoa, prebentzio-neurri egokiak proposatuta.
- **Azterketa bereziki sentikorrak diren langileei:** beren ezaugarri pertsonalengatik edo egoera biologikoagatik, desgaitasun-egoera aitortua dutenak barne, arrisku jakin batzuekiko bereziki sentikorrak diren langileak ebaluatzea.
- **Azterketa adingabeei:** ebaluazio espezifikoa, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

(3) Osasun-azterketaren oinarrizko protokoloa

Oinarrizko protokoloak honako hauek jasoko ditu, gutxienez:

- Amnesi orokorra eta lanekoa: historia klinikoa, aurrekari pertsonalak eta familiarrak, eta lan-aurrekariak.
- Lanpostuaren arabera aplikatu beharreko protokoloak definitzea: lanpostuaren deskribapen zehatza, iraunaldia, hautemandako arriskuak eta prebentzio-neurriak.
- Azterketa kliniko orokorra:
  - Datu antropometrikoak: pisua, neurria, gorputz-masaren indizea, obesitate-maila.
  - Tentsio arteriala eta pultsua.
  - Begi-azterketa.
  - Azterketa otorrinolaringologikoa.
  - Bihotz-biriketako azterketa.
  - Azterketa abdominala.
  - Bizkarrezurraren eta gorputz-adarren azterketa neuroosteomuskularra.
- Proba osagarriak:
  - Hurbileko ikusmena, tartekoa eta urrutikoa, kromatikoa eta foriak

siguientes tipos de reconocimientos:

- **Reconocimiento inicial:** evaluación de la salud del personal trabajador una vez incorporado a la actividad, o después de la asignación de tareas específicas con nuevos riesgos para la salud.
- **Reconocimiento periódico:** vigilancia de la salud a intervalos periódicos, teniendo en cuenta la exposición a los riesgos de la persona trabajadora, la normativa específica aplicable, su estado de salud y el criterio del personal sanitario. Se realizará como mínimo un examen médico anual a cada persona trabajadora. No obstante, la periodicidad podrá ser inferior a la anual cuando así lo exija la normativa aplicable o el protocolo específico del puesto.
- **Reconocimiento tras ausencia prolongada:** evaluación de la salud de aquellas personas trabajadoras que reanuden su actividad tras una ausencia prolongada por motivos de salud (se considerará ausencia prolongada la superior a 6 meses). El Ayuntamiento notificará a la contratista estas ausencias.
- **Reconocimiento a trabajadoras en situación de embarazo o parto reciente:** evaluación específica de los riesgos que puedan afectar a la trabajadora y al feto, con propuesta de medidas preventivas adecuadas.
- **Reconocimiento a personal trabajador especialmente sensibles:** evaluación de aquellos/as trabajadores/as que, por sus características personales o estado biológico, incluidos los que tengan reconocida situación de discapacidad, sean especialmente sensibles a determinados riesgos.
- **Reconocimiento a menores de edad:** evaluación específica conforme a la normativa aplicable.

(3) Protocolo básico del examen de salud

El protocolo básico incluirá, como mínimo:

- Amnesis general y laboral: historia clínica, antecedentes personales y familiares, y antecedentes laborales.
- Definición de los protocolos a aplicar en función del puesto de trabajo: descripción detallada del puesto, tiempo de permanencia, riesgos detectados y medidas de prevención.
- Exploración clínica general:
  - Datos antropométricos: peso, talla, índice de masa corporal, grado de obesidad.
  - Tensión arterial y pulso.
  - Revisión ocular.
  - Revisión otorrinolaringológica.
  - Revisión cardiopulmonar.
  - Revisión abdominal.
  - Revisión neuroosteomuscular de columna vertebral y extremidades.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KONTRATAZIOA
Tel. 943 344034
kontratazioa@pasaia.net

kontrolatzea.
  - Audiometria.
  - Espirometria.
  - Elektrokardiograma.
- Odolaren analisi sistematikoa: hemograma osoa, formula leukozitarioa, glukosa, urea, kreatinina, guztizko kolesterola LDL eta HDL bereizketarekin, triglizeridoak, entzima hepatikoak (GOT, GPT, fosfatasa alkalinoa, GGT).
- Gernuaren analisi sistematikoa: dentsitatea, pH-a, anormalak eta sedimentua.
- Emakumeen kolektiboaren proba analitiko espezifikoak: [adierazi protokoloaren arabera].
- Proba espezifikoak: lanpostuaren arabera, analisi espezifikoagoa behar duten lanpostuei dagozkienak.
- Mediku-azterketa osoa.
- Iritzi klinikoa eta gomendioak: egindako proben baterako balorazioa, langilearen osasun-egoera hobetzeko gomendio medikoak barne.
- Beharrezko prebentzio-neurriak proposatzea, hala badagokio.

(4) Protokolo espezifikoak lanpostuaren arabera

Lanpostu bakoitzean aplikatu beharreko protokolo mediko espezifikoak Laneko Medikuntzan espezializatutako medikuek definituko dituzte, honako hauen arabera:

- Arriskuen ebaluazioak, lanpostuen eta lan-arloen arabera.
- Osasun Ministerioaren irizpideak.
- Prestigio handiko gida medikoak.

Horien behin betiko edukia Pasaiako Udalarekin adostuko da. Arrisku espezifikoei buruzko osasun-ebaluazioak osasuna zaintzeko protokolo espezifikoak zehaztu ondoren egingo dira.

(5) Osasun-larrialdiko egoeretarako protokolo espezifikoa

Enpresa kontratistak berariazko protokolo bat prestatuko du osasun-agintari eskudunek

- Pruebas complementarias:
  - Control de visión cercana, intermedia y lejana, cromática y forias.
  - Audiometría.
  - Espirometría.
  - Electrocardiograma.
- Análisis sistemático de sangre: hemograma completo, fórmula leucocitaria, glucosa, urea, creatinina, colesterol total con separación LDL y HDL, triglicéridos, enzimas hepáticas (GOT, GPT, fosfatasa alcalina, GGT).
- Análisis sistemático de orina: densidad, pH, anormales y sedimento.
- Pruebas analíticas específicas del colectivo femenino
- Pruebas específicas: las correspondientes a los puestos que requieran una analítica más específica en relación con su puesto de trabajo.
- Exploración médica completa.
- Juicio clínico y recomendaciones: valoración conjunta de las pruebas realizadas con recomendaciones médicas que permitan mejorar el estado de salud del trabajador.
- Propuesta de medidas preventivas necesarias, en su caso.

(4) Protocolos específicos por puesto de trabajo

La definición de los protocolos médicos específicos a aplicar a cada puesto de trabajo se realizará por médicos especialistas en Medicina del Trabajo, de conformidad con:

- Las evaluaciones de riesgos por puestos y áreas de trabajo.
- Los criterios del Ministerio de Sanidad.
- Las guías médicas de reconocido prestigio.

El contenido definitivo de los mismos se consensuará con el Ayuntamiento de Pasaia. Las evaluaciones de salud referidas a riesgos específicos se realizarán una vez definidos los protocolos específicos de vigilancia de la salud.

(5) Protocolo específico ante situaciones de emergencia sanitaria

deklaratutako epidemia, pandemia edo osasun-alarmako egoerek eragindako arrisku-egoera berezietarako. Protokolo horretan, langileen osasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak jasoko dira.

b Osasunaren zaintza kolektiboa

Zerbitzuko osasun-langileek langileen osasunaren zaintzaren eta arriskuen ebaluazioaren emaitzak aztertu beharko dituzte, irizpide epidemiologikoak erabiliz, eta kanpoko prebentzio-zerbitzuko gainerako kideekin lankidetzan arituko dira, arrisku profesionalekiko esposizioaren eta osasunerako kalteen artean egon daitezkeen harremanak ikertzeko eta aztertzeko, eta laneko baldintzak eta ingurumena hobetzera bideratutako neurriak proposatuko dituzte. Halaber, jarduketa hauek egingo ditu:

(1) **Lanarekin zerikusia duten gaixotasunak aztertzea:** horrelakoen berri izatean, gaixotasunaren kausen eta osasunerako sor daitezkeen arriskuen arteko edozein lotura identifikatu ahal izateko soilik.

(2) **Etengabeko zaintza kolektiboa:** sistematikoki eta etengabe egingo du langileen osasunaren zaintza kolektiboa, zer arriskuren eraginpean dauden kontuan hartuta, eta jarduera horren adierazleak prestatu eta izango ditu

(3) **Prebentzio-jardueraren urteko plangintza eta memoria** egitea, eta osasun-azterketei buruzko dokumentazioa egin eta gordetzea, lan-agintaritzak erabil dezan.

(4) **Hobetzeko neurriak proposatzea:** lan-baldintzak hobetzeko neurriak proposatuko ditu, laneko osasunaren ikuspegitik.

(5) Osasun-administrazioarekin lankidetzan aritzea: Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 38. artikuluan ezarritakoaren arabera.

(6) Osasun-agintariekin lankidetzan aritzea: Lan Osasunaren Informazio Sanitarioko Sistemaren zaintza epidemiologikoan, horniduran eta mantentze-lanetan, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 39. artikuluaren arabera.

(7) Osasun-agintaritzak Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 38. eta 39. artikuluetan jasotako lankidetzaren esparruan esleitzen dien **beste edozein funtziotan parte hartzea.**

(8) **Segurtasun eta Osasun Batzordeari laguntza eta aholkularitza ematea** laneko osasunari buruzko gaietan, hala eskatzen zaionean.

(9) Baliaezintasun-mailaren bat duten langileak birkokatzeko aukerei buruzko txostenak egitea.

c) Kolektibo espezifikoen eguneratzeak

Osasun-zerbitzuak bereziki honako hauek aztertu eta baloratuko ditu:

La empresa contratista elaborará un protocolo específico en situaciones especiales de riesgo, generadas por epidemias, pandemias o situaciones de alarma sanitaria declaradas por las autoridades sanitarias competentes, que incluya las medidas necesarias para garantizar la salud del personal trabajador.

b Vigilancia colectiva de la salud

El personal sanitario del servicio deberá analizar los resultados de la vigilancia de la salud del personal y de la evaluación de los riesgos, con criterios epidemiológicos, y colaborará con el resto de los componentes del servicio de prevención ajeno o interno a fin de investigar y analizar las posibles relaciones entre la exposición a los riesgos profesionales y los perjuicios para la salud, proponiendo medidas encaminadas a mejorar las condiciones y medio ambiente de trabajo.

Asimismo, realizará las siguientes actuaciones:

(1) Estudio de enfermedades relacionadas con el trabajo: cuando se tenga conocimiento de ello, a los solos efectos de poder identificar cualquier relación entre las causas de enfermedad y los riesgos para la salud que puedan presentarse.

(2) Vigilancia colectiva continua: efectuará sistemáticamente y de forma continua la vigilancia colectiva de la salud del personal, en función de los riesgos a los que están expuestos, elaborando y disponiendo de indicadores de dicha actividad.

(3) Planificación y memoria anuales de la actividad preventiva, elaboración y conservación de documentación sobre los exámenes de salud para disposición de la autoridad laboral.

(4) Propuesta de medidas de mejora: propondrá medidas para la mejora de las condiciones de trabajo desde el punto de vista de la salud laboral.

(5) Colaboración con la administración sanitaria: según lo establecido en el artículo 38 del Reglamento de los Servicios de Prevención.

(6) Colaboración con las autoridades sanitarias: en las labores de vigilancia epidemiológica, provisión y mantenimiento del Sistema de Información Sanitaria en Salud Laboral, según el artículo 39 del Reglamento de los Servicios de Prevención.

(7) Participación en cualquier otra función que la autoridad sanitaria les atribuya en el marco de la colaboración contemplada en los artículos 38 y 39 del Reglamento de los Servicios de Prevención.

(8) Soporte y asesoramiento al Comité de Seguridad y Salud en los temas de salud laboral en que sea requerido.

(9) Elaboración de informes sobre opciones de reubicación de personal trabajador con algún grado de invalidez.

c) Actualizaciones en colectivos específicos

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KONTRATAZIOA
Tel. 943 344034
kontratazioa@pasaia.net

(1) Haurdun dauden edo duela gutxi erditu diren langileengan eragina izan dezaketen arriskuak
(2) Arrisku jakin batzuekiko bereziki sentikorrak diren langileengan eragina izan dezaketen arriskuak
(3) Kasu bakoitzean prebentzio-neurri egokiak proposatuko ditu.
(4) Baliaezintasun-mailaren bat duten langileak birkokatzeko aukerei buruzko txostenak egingo ditu.
(5) Osasun-arrazoiengatik lanpostua egokitzeari edo aldatzeari buruzko aholkuak emango ditu.

d) Osasuna sustatzeko programak

Entitate kontratistak lantokian osasuna sustatzeko programak bultzatuko ditu, Osasun Sistemarekin koordinatuta, eta prestakuntza, informazio eta ikerketa programak garatuko ditu bere lan-eremuan. Besteak beste, honako ekintzak egingo ditu:

(1) Txertaketa-kanpainak (A eta B hepatitisa, tetanosa, gripea eta osasun-agintaritzak erabakitako beste batzuk)
(2) Hitzaldiak eta tailerrak ohitura osasungarriei, ergonomiari, elikadurari, arrisku psikosozialen prebentzioari eta abarri buruz.
(3) Arrisku espezifikoei eta prebentzio-neurriei buruzko informazioa.

e) Beste prebentzio-diziplina batzuekiko koordinazioa

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak deitzen dituen koordinazio-bileretan parte hartuko du esleipendunak, eta prebentzio-jarduera planifikatzeko behar den osasun-informazio erantsia emango du.

Era berean, prebentzio-zerbitzuak 31/1995 Legearen 31. artikuluaren 3. zenbakian esleitutako eginkizunak garatzeko egiten dituen jarduera ez-sanitario espezifikoetan parte hartuko du, jarduera horien diziplinartekotasuna bermatzeko, aipatutako artikuluaren 4. zenbakian ezarritakoaren arabera.

El servicio sanitario estudiará y valorará especialmente:
(1) Los riesgos que puedan afectar a las trabajadoras en situación de embarazo o parto reciente.
